

Dezibel adina diru

Musika krisian? Nahi luke, inguruan antolatzen ari den jaialdi pila ikusita. Inoiz baino festibal gehiago izango da Euskal Herrian ekainetik aurrera. Badirudi azken urteetan zerbitzua nagusitu zaiola produktuari; kontzertuek mugitzen dituzte sosak, diskoen salmentak gainbehera doaz. Musikaren errotarria ez da gelditu horregatik, natza aldatu baino ez du egin. Noiz arte jarraituko du dantzak? Zein arrisku ditu dinamika honek?

GORKA BEREZIARTUA

ERREGEAREN BILA abiatu eta etxe ondoan aurkitu. Last Tour International enpresa bizkaitarrak lotu ditu datozen hilabeteetako jaialdi garrantzitsuenen hari muturrak. Ekainaren 20an Kobetasonik metal jaialdi berriarekin ekingo diote udari. Judas Priest, Kiss,

Slayer, Helloween eta Europe taldeek, besteak beste, tximarik luzeenak astinaraziko dituzte Bilboko Kobetamendi parkean. Baina hori bukatuta ez dute Last Tourrekoek deskantsurako denbora askorik izango: jendea gainez gain etorriko da Bilbao BBK Live fes-

LUIS JAUREGIATZO/ARGAZKI PRESS

Horrelako itxura zuen iaz Bilboko Kobetamendi parkeak Metallica taldea eskenatokira igo zenean. Aurten bi jaialdi antolatu dituzte leku berean: Kobetasonik eta Bilbao BBK Live. Euskal Herria Zuzenean jaialdiak eta Azkena Rock festivalak osatzen dute Euskal Herriko jaialdien eskaintza.



tibalera, The Police, Lenny Kravitz, R.E.M., The Prodigy edo Madness bezalako taldeek erakarrira. Eta Gasteizko Azkena Rock jaialdia ere gainean izango dute irailean. Giharrak berotuta iritsi dira, maiatzaren bukaeran Getafen (Espainia) Electric Festival jaialdia antolatzen ibilita. Hori, enpresak kudeatzen dituen beste taldeen birak ahaztu gabe: El Columpio Asesino, Fito & Fitipaldis, Andres Calamaro, Extremoduero, Tequila... Urte osoan gelditzeko astirik gabe dabilta, artisten atzean dagoen eromenean ezerk huts egin ez dezan.

Ibai Villapún Last Tour Internationaleko prentsa burua da; bere agenda Fiat Panda autoa bezalako: dena ez da kabitzen. Aurten Euskal Herrian izango diren artistak lortzea “diru kontua” baino ez da izan bere esanetan. Musikaiek European bira egitea erabakitzen duten momentuan enkantea hasten da. Eskaintza onena egiten duen promotoreak jartzen du bere kartelean letra larriz hain ezaguna den taldearen izena.

Erraza dirudi. Konpetentzia basatia da ordea, batez ere kontuan izanda tankera honetako jaialdiak musikatik harago dagoen fenomenoaren isla direla. Udalei eta erakunde publikoei biziki interesgarria zaie kulturaren bidetik etortzen den turismoa eta azken urteetan ez dira otean egon inbertsioekin. Jaialdien hazkundera kultur azpiegitura handien ugaritzearen atzetik etorri da eta fenomeno



Goitik behera: Judas Priest taldea, R.E.M. taldeko Michael Stipe eta Keny Arkana hip hop abeslari frantziarra, udako hiru jaialditako protagonistak.

berri samarra da gurean. Orain dela pare bat urtetik hona dirulaguntzak handiagoak dira “eta horrek eragin du lehen jaialdiak egiten ez zituzten asko orain mundu honetan sartzea” Villapúnen arabera. Bilboko Udalak esaterako, 1,5 milioi euroko laguntza eman zuen joan den urtean Bilbao BBK Live jaialdiko taldeak ekartzeko. Gehitu horri esponsorrek publizitatearen truke ematen dutena.

Noiz lehertuko da puxika?

Merkatua badago momentuz, baina argi ibili. AEBetan Coachella jaialdi erraldoiak dominatzen egin du, ez ditu sarrera guztiak saldu. Eskaintza gehiegi ugaritzen denean ikusiko da zein jaialdi den hegazkina eta zein globo aerostatikoa. Villapúnen iritzi entzuleek esan beharko dute jaialdi gehiegi antolatzen direnentz. “Hemendik pare bat urtera galbahe antzeko bat egongo dela uste dut eta indartsuenak geratuko dira”. Zalantzarik ez, puxika lehertzeko arriskua bada bere ustez, baina beste edozein sektoreren antzekoa da peril hori jaialdiekin. Esan bestela etxebizitzetan inbertitu zuten enpresei, seguruagoa al zen?

Gainera badaude entzule kopurua ziurtatzeko *trikimailu* batzuk. Bat esklusibitate klausula ordaintzea da. Promotoreek diru gehiago eskainiz lortzen dute talde batek euren herrialdean kontzertu bakarra eskaintzea. Electric jaialdian Last Tour Internationalek horixe egin zuen,

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela lau urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orotentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoz, sei dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.

gure artean euskaraz

Eta jazz, noski

Uztaila eta jazz eskutik joaten dira urtero. Aurten jaialdi berrien distirak ez itsutzeko ahalegin berezia egin dute Getxo, Gasteiz eta Donostiako jazz jaialdiek, Baionako La Ruée au Jazz, Zarauzko Jazz Mintegia eta Arabako hiriburuan hirugarrenez antolatu duten Jazzaharrean ahaztu gabe.

Azken horrek botako du itxaferoa uztailaren lehenarekin. Euskal Herriko artista ugari bilduko dira Gasteizko Alde Zaharrean, baina ez dira faltako Herrialde Katalanak, Espainia eta Alemaniako musikariak ere. Uztailaren 13ra bitartean hamalau talde ariko dira.

Getxok zaletuaren apetitua esnatzeko menu berezia prestatu du aurten. Uztailaren 8tik 12ra bitartean izango da aurtengo Getxoko Jazzaldia, Bilbao BBK Live bukatu eta bi egunera beraz. Jaki guriena John McLaughlin gitarra jolea da –Chick Coreak zera esan zuen berataz: “Lehenago inork ez zuen horrela jotako gitarra elektriko bat entzun”–; ezin ahaztu ordea Arturo Sandoval kubatarra, ezta Archie Shepp eta Avishai Cohen estatubatuarrek ere.

Hiru eguneko programa prestatu dute Baionako La Ruée au Jazz jaialdiaren aurtengo ediziorako. Uztailaren 11n Mina Agossi kantaria ariko da, Ahmad Jamal –Miles Davis-en piano jole gogokoenetako bat– 12an eta Erik Truffaz tronpeta jole suitzarra 13an.

Baionatik berriro Gasteizera, uztailaren 13tik 19ra bitartean mito bat, Herbie Hancock eta beste hainbat izen garrantzitsu: Chucho Valdés Quintet eta Bebo Valdés, Cassandra Wilson, Sonny Rollins... Gainera Mendizorrotxa kiroldegian elektronika entzuteko aukera izango da jaialdiaren 32. edizioan.

Eta postrerako bi zita klasiko: Donostiako Jazzaldia hilaren 22tik 27ra ospatuko dute. Lou Reed eta Liza Minelli ekarri dituzte aurten kartel buruan. “Betiko” jazzetik edan nahi duenak esku-eskura izango ditu Keith Jarrett, Kenny Barron, Maceo Parker edo Johnny Winter, besteak beste. Zarauzko Mintegian aldiz, Iñaki Salvadorren gidaritzapean, luxuzko hamar irakasle izango dira aurten ere uztailaren 17tik 20ra.

Espainiako Estatuan Rage Against The Machine eta Metallicak jotako kontzertuak bakarrak izan zitezten. Zenbat diruz ari garen? *Top secret*, datu hori ez dute ematen. Edonola ere, maiatzean Espainiako *El País* egunkarian argitaratutako erreportaje batean zenbaki batzuk argitaratu ziren: The Police-en Bilboko kontzertua, 1,9 milioi euro, udako garestiena da.

EHZ, beteranoena

Diru kopuru txikiagoak izango ditu esku artean Euskal Herria Zuzenean jaialdiak, baina paparrean domina jar dezake: udako jaialdi beteranoena da. 2008koarekin nerabe-zaroan sartuko da bete-betean, 13. edizioa izango du. Ez da bide erraza izan eta bazuridien aurten malkarra ezingo zuela igo. Jaialdia “bihurgune”-ra heldu zela adierazi zuten joan den urteko abenduan, festivalak galerak izan zituela. Artistek hitzartutakoa baino gutxiago kobratzea onartu zutelako lortu zuten kontuak berdintzea. Joan den urteko abenduan jaialdia antolatzeaz arduratzen den biltzar nagusia Hazparden bildu zen etorkizuneko bideari laharra kentzeko. Arrosan zortzi urtez antolatu ostean aurtengoa bosgarrena izango du EHZk Iduze-Mendin. Bosgarrena eta azkena, datorren urtean non ospatuko den zehaztu ez duten arren.

“Agur Zuberoa” esateko tenorea iritsi da eta horretarako musika taldeak ekartzeaz gain bestelako animazioak ere antolatu dituzte. Kartel buruan nazioarteko eszena alternatiboko hiru izen ezagun: Keny Arkana hip-hop abeslari altermundialista, Toots & The Maytals ska-reggae talde jamaikarra –besteak beste talde honen *Chatty Chatty*ren bertsioa da Kortaturen *Sarri Sarri* kanta ezaguna– eta Clawfinger rap-metal estiloaren aitzindaria. 1990eko hamarkadan *Do what I say* abestiarekin arrakasta handia lortu zuen talde suediar horrek.

Jaialdi handia izanik ere, bestelako eredua da EHZrena. Buxet handirik gabe, inguruko herritarrekin elkarlanean ariko da, baita Euskal Herriko Laborantza Ganberarekin ere, jaialdiko elikagaiez hornitzeko. Birziklapena sustatuko dute eta droga kontsumoaren inguruko prebentzioa landuko da jaialdian. Esne Beltza taldeko Xabi Solanok laburbildu zuen hobekien jaialdiaren izaera aurkezpena egin zenean: “Hango giroa oso herrikoia da; beste festival askotan ez da hori gertatzen”. ■



Atxaspi hotela

Bittiria kalea 24 • 31770 LESAKA
Tel.: 948 637 536 • www.atxaspi.com